

# doinu esnagarri

Norbert Tauer-i «Má vlast»en  
oroiz eta bere euskaltzaletasunaren eskerkiz.

Smetana handia, zer dakarkidak gau hontan?  
«Vltava»k daraman doinu berezi hotsa,  
hain sakonki astintzeko gaur nire bithotza.  
Zer arkitzen diat hire doinu entzungarri hortan?  
Bohemia-ko biolinen doinua negarti,  
ibaiaren eten gabeko marmarioak apaindua  
Txeko herri zintzoaren gogo-nahi landua,  
agerian duelarik bere tolezkaitasun harrigarri.  
Kristalezko eresiok zorrozki zulatuz,  
nire erraietaraino minaren minez sakonduz;  
gau honen beltzean, beste gau bat sortuz.  
Smetana-k edan zuen ur garden hori  
Eslava-ko ibai korrenteruntz da ixuri.  
Vltava!: Hi haiz, hi, herri ereduaren iturri.

**OTSALAR**

# himno alentador

*a Norbert Tauer en memoria de "Má vlast"  
y en reconocimiento a su vascofilia)*

¿Qué traes, Smetana en esta noche  
con el Vltava y su sonido dulce,  
para turbarme a fondo el corazón?  
¿Qué percibo en tan clara melodía?  
Quejas de los violines de Bohemia  
bajo el rumor de un incesante río,  
la fiel y cultivada voluntad  
del pueblo checo, grande en su entereza.  
Agudas notas de cristal penetran  
hasta mi oscuridad, y ahora la siento  
arrebatada en una nueva noche.  
Purezas de esas aguas que Smetana  
bebió una vez, en el Eslava viertan.  
Vltava, ¡fuente de tu digno pueblo!

**OTSALAR**

(VERSION DE JORGE ARANGUREN)

Jorge Aranguren ha hecho un recreo sobre el poema de Otsalar y Otsalar nos remite a todos nosotros a las raíces más íntimas de su profundo sentir, a las honduras más próximas al fondo del río Eslava.